



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2018ko maiatzaren 22a

69. ZK.

A U R K I B I D E A

E S A I L A:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

—Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak beste behin aldarrikatzen baitu pertsona orok daukala eskubidea aske eta presiorik gabe bizitzeko, bere sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen edo -adierazpenaren arabera. Eledunen Batzarrak onetsia (3. or.).

F S A I L A:

Galderak:

- Galdera, zentroekin eta zerbitzuekin egindako kontratuetan langile-kualifikazioa 2017ko Ikuskaritza Planaren arabera izatearen kontrolaren emaitzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, zentroek eta zerbitzuek 2017ko Ikuskaritza Planaren arabera jasotako diru-laguntzen kontrolari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, gizarteratze-errentaren edo errenta bermatuaren hartzaileri 2016ko eta 2017ko Ikuskaritza Planaren arabera egindako kontrolen emaitzari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, Ikuskaritza Zerbitzuek 2016an egindako errekerimenduei eta ohartarazpenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, 2018ko Ikuskaritza Planean errenta bermatuko espedienteak Foruzaingoari soilik igortzea aurreikusteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko langile publikoen amatasun eta aitatasun baimenen urtez urteko bilakaerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Abiadura Handiko Trenaren proiektuko 4. eta 5. azpizatien oinarritzko proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Club Atlético Osasunak bere tributu-zorrrak ordaintze aldera Ogasunari emandako ondasunak berrerosteko edo lehentasunez erosteko eskubideari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, 2018ko martxoaren 8ko grebak Hezkuntza Departamentuaren menpeko ikastetxeetan izandako eraginari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernuako lehendakariak Plaza de la Cruz BHIko Batxilergoko bigarren mailako ikasleekin ginen duen saioari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

- Galdera, Camilo José Cela Unibertsitateko Hezkuntza Politiken Katedraren lanean PISA txostena dela-eta Nafarroari buruz ageri diren datuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Hondarribiko udalekuetako familiabakarreko etxebizitzari 1995etik eman zaion erabilerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, Hondarribiko udalekuetako ipar hegalean 2009an egindako erreformari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, asteko erlijio-irakastorduen kopurua murrizteari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Hezkuntza Ministerioaren eta British-aren arteko hitzarmenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak beste behin aldarrikatzen baitu pertsona orok daukala eskubidea aske eta presiorik gabe bizitzeko, bere sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen edo -adierazpenaren arabera.

ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2018ko maiatzaren 17an egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak beste behin aldarrikatzen du pertsona orok daukala eskubidea aske eta presiorik gabe bizitzeko, bere sexu-orientazioaren eta genero-identitatearen edo -adierazpenaren arabera.

2. Nafarroako Parlamentuak herritarrei dei egiten die hausnarketa egin dezaten, Homofobiaren, Transfobiaren eta Bifobiaren aurkako Nazioarteko Egunaren kariatara, sexu-orientazioagatiko eta genero-identitateagatiko diskriminazioaren aurka egitearen garrantziaz eta gure gizartean sexu-bestelakotasunarekiko errespetua sustatzeaz.

3. Nafarroako Parlamentuak sexu-orientazio eta genero-adierazpen guztiekiko tolerantziaren eta errespetuaren alde kontzientziazteko kanpainak bultzatzen jarraitzeko konpromisoa hartzen du.

4. Nafarroako Parlamentuak, Homofobiaren, Transfobiaren eta Bifobiaren aurkako Nazioarteko Egunaren kariatara, ostadarraren bandera jarriko du bere fatxadan, LGTBI+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko 8/2017 Foru Legearen 7.3 artikulua jasotzen duenari jarraikiz”.

Iruñean, 2018ko maiatzaren 17an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

F saila:
GALDERAK

Galdera, zentroekin eta zerbitzuekin egindako kontratuetan langile-kualifikazioa 2017ko Ikuskaritza Planaren arabera izatearen kontrolaren emaitzari buruzkoa.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, zentroekin eta zerbitzuekin egindako kontratuetan langile-kualifikazioa 2017ko Ikuskaritza Planaren arabera izatearen kontrolaren emaitzari buruzkoa. Galdera 2018ko martxoaren 9ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du (9-18/PES-00063) zentroekin eta zerbitzuekin egindako kontratuetan langile-kualifikazioa 2017ko Ikuskaritza Planaren arabera izatearen kontrolaren emaitzari buruz. Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

a) Zenbat zentro eta zerbitzutan kontrolatu zen langileen kualifikazioa.

173 bisita egin dira Gizarte Zerbitzuen eta Baimen Berariazkoen Erregistroan baimenduta eta erregistratuta dauden zerbitzuetara, arauetako eta, kasu bada, Departamentuarekin izenpetutako itunen baldintzak betetzen direla egiaztatze aldera.

Kasu guztietan egiaztatzen da itunen klausula teknikoak bete egiten direla, halakorik badago. Egindako ikuskatzeen % 100ean kontratatutako langileen kualifikazioa egiaztatzen da.

b) Horrek zentro eta zerbitzu guztien zer portzentaje egiten duen urte horretan.

2017an, ikuskatutako zentro guztietatik (173) % 27,7tan, adineko pertsonen, desgaitasunaren eta gaixotasun mentalaren arloetan, ez-beteteren bat aurkitu da, eta hura organo kudeatzaileari helarazi zaió (Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentzia), amaiera administratiboa emateari begira.

c) Langile-kualifikazioa kontratuan eta atzemandako langile-kualifikazioak.

Itunen klausula tekniko guztiak betetzen direla berrikusi da, eta azpimarra berezia jartzen da kontratu bakoitzean ezarritako baldintzak betetzean. Berriz diogu egindako ikuskatzeen % 100ean kontratatutako langileen kualifikazioa egiaztatzen dela.

d) Kontratuen exekuzioan edo kontratua suntsiarazteko espedienteetan ezarritako penalizazioak, ez-beteterik detektatuz gero.

Honako hauek dira egindako kontrolaren emaitza eta ezarritako zigorrak:

- Alesbesko Virgen del Portal egoitza: 159,18 euroko beherapena + 105,39 euro zigor gisa.
- San Adriango egoitza: 14.372,67 euroko beherapena + 12.218,07 euroko zigorra.
- Barasoingo Hogar Santa Elena: 1.697,86 euroko beherapena + 1.492,4 euroko zigorra.
- Faltzesko Fausta Elorz Fundazioa: 277,76 euroko beherapena + 179,42 euroko zigorra.
- Las Améscoas egoitza: 252,37 euroko beherapena + 188,29 euroko zigorra.
- Zarrakazteluko Nuestra Señora del Rosario egoitza, 546,32 euroko beherapena + 422,03 euroko zigorra.

Gaixotasun mentalaren eta desgaitasunaren arloetan, alegazioak aurkezteko epean gaude;

hori dela eta, ezin da emaitza horiei buruz informatu.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko martxoaren 28an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

Galdera, zentroek eta zerbitzuek 2017ko Ikuskaritza Planaren arabera jasotako diru-laguntzen kontrolari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, zentroek eta zerbitzuek 2017ko Ikuskaritza Planaren arabera jasotako diru-laguntzen kontrolari buruzkoa. Galdera 2018ko martxoaren 9ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du (9-18/PES-00064) zentroek eta zerbitzuek 2017ko Ikuskaritza Planaren arabera jasotako diru-laguntzen kontrolari buruz. Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako gizarte gaien arloko 2017rako ikuskapen planaren II.3.1.c) jarduketa-ildo oinarritzkoak aurreikusten du Eskubide Sozialetako Departamentuak desgaitasunaren arloko lanerako prestatzeko zentroi emandako diru-laguntzen

oinarrietan ezarritako baldintzak betetzen diren ala ez kontrolatzea.

Urte horretan lanerako prestatzeko zentroen kanpoko ebaluazio bat egin zenez, entitate independente batzuei esleitutako kontratu baten bitartez –ebaluazio horretan, besteak beste, diru-laguntzen zertarakoa eta diru-laguntzen kontrol finantzarioa eta eraginkortasunaren eta efizientziaren gaineko kontrolak egiten dira–, organo eskudunak erabaki zuen urte hartan haietan ikuskatzerik ez egitea.

Hala eta guztiz ere, Departamentuko diru-laguntzen organo kudeatzaileei kontsulta eginda, egiaztatuta da deialdi bidez zein modu izendunean emandako diru-laguntza guztien justifikazio ekonomiko eta teknikoak konprobatu egin direla.

Kontrol horren emaitza gisa, 2017an itzulketa partzialeko lau espediente izapidetu dira. Diru-laguntzatik erreklamatu zaien zatia itzuli dute entitateek.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko martxoaren 28an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

Galdera, gizarteratze-errentaren edo errenta bermatuaren hartzaileei 2016ko eta 2017ko Ikuskaritza Planen arabera egindako kontrolen emaitzari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, gizarteratze-errentaren edo errenta bermatuaren hartzaileei 2016ko eta 2017ko Ikuskaritza Planen arabera egindako kontrolen emaitzari buruzkoa. Galdera 2018ko martxoaren 9ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Maribel García Malo andreak galdera egin du gizarteratze-errentaren edo errenta bermatuaren hartzaileei 2016ko eta 2017ko Ikuskaritza Planen arabera egindako kontrolen emaitzari buruz. Hona Nafarroako Gobernuaren erantzuna:

a) Diru-sarreraren Bermearen eta Prestazio Ekonomikoen Atalak 2016an igorritako espedienteen kopurua.

71 espediente

b) Atal berak 2017an igorritako espedienteen kopurua.

78 espediente

c) Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek 2016an igorritako espedienteen kopurua.

Familia unitateak, guztira: 14.540.

d) Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek 2017an igorritako espedienteen kopurua.

Familia unitateak, guztira: 15.918.

e) Igorritako espedienteen portzentajea (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuenak gehi Atalarenak), gizarteratze-errentaren 2016ko hartzaile guztien kopuruarekin alderatuta.

Ehuneko 0,4888.

f) Igorritako espedienteen portzentajea (Oinarrizko Gizarte Zerbitzuenak gehi Atalarenak), gizarteratze-errentaren edo errenta bermatuaren 2017ko hartzaile guztien kopuruarekin alderatuta.

Ehuneko 0,5364.

g) 2016an Foruzaingoari igorritako espedienteen portzentajea. Horrek egiten duen portzentajea,

Atalak eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek igorritako guztiekin alderatuta.

Atalak igorritakoen % 100.

h) 2017an Nafarroako Poliziei igorritako espedienteen kopurua. Horrek egiten duen portzentajea, Atalak eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuek igorritako guztiekin alderatuta.

Atalak igorritakoen % 100.

i) Foruzaingoak 2016an egindako ikerketen emaitza.

Artxiboa: 33.

Azkentzea eta itzulketa: 41.

Etetea: 8.

j) Foruzaingoak 2017an egindako ikerketen emaitza.

Artxiboa: 18.

Azkentzea eta itzulketa: 62.

Kontrola eta erregularizazioa: 9.

Txostenak emateko zain: 4.

k) 2016an egindako ikerketen ondorioz irekitako espedienteak (itzultzekoak, prestazioa etetekoak edo zehapenekoak).

Diru-sarreraren Bermearen eta Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuaren zuzendaritzari kontsulta eginda, informatu digute informazio-sistemak (Gizarte Prestazioen eta Zerbitzuen Zerbitzu Integratua) ebazpenak erregistratzen dituela, baina ezin dela jakin haietatik zein diren ikuskatze baten ondorioa.

l) 2017an egindako ikerketen ondorioz irekitako espedienteak (itzultzekoak, prestazioa etetekoak edo zehapenekoak).

Diru-sarreraren Bermearen eta Garapenerako Lankidetzaren Zerbitzuaren zuzendaritzari kontsulta eginda, informatu digute informazio-sistemak (Gizarte Prestazioen eta Zerbitzuen Zerbitzu Integratua) ebazpenak erregistratzen dituela, baina ezin dela jakin haietatik zein diren ikuskatze baten ondorioa.

Iruñean, 2018ko martxoaren 28an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

Galdera, Ikuskaritza Zerbitzuek 2016an egindako errekerimenduei eta ohartarazpenei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Ikuskaritza Zerbitzuek 2016an egindako errekerimenduei eta ohartarazpenei buruzkoa. Galdera 2018ko martxoaren 9ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du (9-18/PES-00066) Ikuskaritza Zerbitzuek 2016an egindako errekerimenduei eta ohartarazpenei buruz. Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

ERREKERIMENDUA-OHARTARAZPENAK, 2016an	
ZERBITZUA	ERREKERIMENDUA/OHARTARAZPENAK
DIONISIO SALCEDO SÁDABA ZAHAR-ETXEA	2 errekerimendu 1. Instalazioen garbiketa 2. Kexen eta iradokizunen protokoloa ezartzea
SAN ADRIANGO ADINEKO PERTSONENTZAKO EGOITZA	2 errekerimendu 1. Langile arloko doikuntza bat 2. Banakako arreta planak egitea
EL MIRADOR ZAHAR-ETXEA	3 errekerimendu 1. Parte-hatzerako Kontseilua 2. Komunitateko txirrinen irisgarritasuna 3. Fisioterapiarako areto bat edukitzea
VIRGEN DE JERUSALÉN EGOITZA	Ohartarazpen 1 1. Loturei buruzko baimen informatua 2 errekerimendu 1. Baranden erabileraren eta mantentzearen erregistroa 2. Parte-hatzerako Kontseiluaren akten sinadurak
AMMA IBAÑETA	Ohartarazpen 1 1. Baimen informatua. Loturak
AMMA BETELU	Errekerimendu 1 1. BAParen prestakuntza
AITA BARANDIARAN	2 ohartarazpen. 1. Parte-hatzerako Kontseilua. Sinatu gabeko kontratuak 3 errekerimendu. 1. BAParen prestakuntza. 2. Loturetarako batzordea sortzea 3. . Harrera-protokoloa egitea
AMMA MUTILVA	Errekerimendu 1 1. BAParen zenbait alderdi
SAN MANUEL ETA SAN SEVERINO EGOITZA	2 errekerimendu 1. Banakako arreta planak egitea 2. Protokoloa. Horien datak

ERREKERIMENDUA-OHARTARAZPENAK, 2016an	
ZERBITZUA	ERREKERIMENDUA/OHARTARAZPENAK
MIRANDA ARGAKO VIRGEN CASTILLO EGOITZA	Errekerimendu 1 1. BAPetan erreferentziako profesionala aipatzea.
SAN FRANCISCO DE ASÍS EGOITZA	3 errekerimendu 1. Baranden erregistroa eta kontrola 2. Parte-hartzerako Kontseiluaren akten sinadura 3. BAPen oinarritzko datuak
LUZ DE ESTELLA EGOITZA	2 errekerimendu 1. BAPen esku-hartzeen helburuak 2. Presioaren ondoriozko ultzeri buruzko protokoloa eta haien erregistroa
LODOSAKO ZAHAR-ETXEA	Errekerimendu 1 1. Baranden mantentze-lanak
BENITO MENNI	Errekerimendu 1 1. Langileak bi zentroen artean banatzea
AMMA OBLATAS	Errekerimendu 1 1. BAPekin lotutako zenbait alderdi Ohartarazpen 1 1. Preskripzio medikoa eta baimen informatua
AMMA ARGARAY	Errekerimendu 1 1. Parte-hartzerako Kontseiluaren osaera 2 ohartarazpen 1. Ikuskatzailetzari emandako datuak, fitxaketei buruzkoak 2. Loturei buruzko preskripzio fakultatiboa
CARMEN BELLIDO EGOITZA	Errekerimendu 1 1. Protokoloak egitearen inguruan
LA MILAGROASA EGOITZA	2 errekerimendu 1. BAPeko erreferentziako langileak 2. Parte-hartzerako Kontseilua. Udalaren ordezkaria
“Solidaridad” egoitza mistoa	3 errekerimendu 1. BAPa Hobekuntzarako hainbat alderdi 2. Protokoloak egiteko hobekuntza. Ohartarazpen 1. 1. Pertsonaren baimen informatua edukitzea 2. Kexak hartzeko eta ebazteko biderik ez egotea
SANTA ZITA EGOITZA	2 errekerimendu 1. Banakako arreta planak egitea 2. Simulakroa
NTRA. SRA. DEL PILAR EGOITZA	2 errekerimendu 1. Kontratuaren sinadura 2. BAParen zenbait alderdi Ohartarazpen 1 1. Preskripzioa/baimen informatua. Loturak
SANTA TERESA JORNET EGOITZA (GERENDIAIN)	2 errekerimendu 1. BAParekin zerikusia dutenak. Zenbait alderdi 2. Loturen, preskripzioen eta baimenen protokoloa 3 ohartarazpen 1. Simulakroa 2. Diziplinarteko lantaldea 3. Lotura fisikoak. Preskripzioa eta baimena

ERREKERIMENDUA-OHARTARAZPENAK, 2016an	
ZERBITZUA	ERREKERIMENDUA/OHARTARAZPENAK
BELOSO ALTO EGOITZA	Errekerimendu 1 1. Proposatutako lotura-neurriak. Ongi zehaztuak 2 ohartarazpen 1. Parte-hartzerako Kontseilua 2. Lotura fisikoak. Preskripzio fakultatiboa
SAN ISIDRO EGOITZA	3 errekerimendu 1. Parte-hartzerako Kontseiluaren bilerak 2. BAPak egitea, loturak jasoz 3. Barandak berrikustea
TOMAS LYDIA ETA JAVIERA RECARI EGOITZA	Errekerimendu 1 1. Familiei BAPari buruz informatzea
ANDRA MARI EGOITZA	2 errekerimendu. 1. Diziplinarteko lantaldearen bilerak 2. BAPen prestaketa hobetzea 2 ohartarazpen 1. Parte-hartzerako Kontseilua ez biltzea 2. Erabiltzailearekin kontratua ez sinatzea
ERRUKI ETXEA	Errekerimendu 1 1. BAPetan jaso behar diren lotura-neurriak
SAN JOSÉ EGOITZA	2 errekerimendu 1. Kontratua formalizatzea 2. Loturak direla-eta baimen informatuaren idazkia edukitzea
LAS AMÉSCOAS ZAHAR-ETXEA	2 errekerimendu 1. Kexen eta iradokizunen protokoloa 2. BAPerako erreferentziako senidea Ohartarazpen 1 1. Loturei dagokienez, preskripzio eta baimen informatu bana egon dadila aplikatutako euspen-neurri bakoitzerako
SAN SEBASTIÁN EGOITZA	4 errekerimendu. 1. Parte-hartzerako Kontseilua 2. Kexen protokoloa ezartzea, eta haiek idatzizkoak izatea 3. BAPa sinaturik
SAN JOSÉ ZAHAR ETXEA	6 errekerimendu 1. 3, loturei buruzkoak 2. Kexetara eta iradokizunetara sartzeko eskubidea 3. Erreferentziako profesionala 4. Banakako arreta planak egitea 4 ohartarazpen 1. Simulakroa prestatzea 2. Barne-araudiari buruzko erregelamendua 3. Baimen informatua 4. Parte-hartzerako Kontseiluaren bidez parte hartzeko sistema
LA VAGUADA egoitza	3 errekerimendu 1. Baimen informatua 2. Parte-hartzerako Kontseilua 3. Langile guztien fitxatzea 2 ohartarazpen 1. Aplikazio bakoitzeko baimen informatu bat. 2. Sarrera garaian ematen den euspen fisiko-farmakologikorako baimen-eredua kentzea, arauarekin bat ez etortzeagatik

ERREKERIMENDUA-OHARTARAZPENAK, 2016an	
ZERBITZUA	ERREKERIMENDUA/OHARTARAZPENAK
SANTA ELENA EGOITZA	2 errekerimendu 1. BAParen prestakuntza 2. Simulakroa Ohartarazpen 1 1. Loturak. Preskripzio medikoa eta baimen informatua
FUNESKO SAN MIGUEL EGOITZA	Errekerimendu 1 1. BAPerako erreferentziako profesionala
NTRA. SRA. DE LA CARIDAD EGOITZA	3 errekerimendu 1. BAPak prestatzea Hobekuntzak 2. Baranden erabilerari buruzko erregistroa 3. Kexen eta iradokizunen protokoloa
AZKOIENGO SAN MIGUEL ZAHAR ETXEA	2 errekerimendu 1. Parte-hatzerako Kontseilua, osaera 2. BAPak egitea
VALTIERRAKO SAN JOSÉ EGOITZA	Errekerimendu 1 1. Garbiketen, kexen eta iradokizunen protokoloa egitea
LANDAZABAL EGOITZA	4 errekerimendu. 1. BAPa Senideentzako informazioa 2. Baranden mantentze-lanak 3. Protokoloak berrikustea 4. Komun eta dutxen erregistroa
BENITO MENNI	Errekerimendu 1 1. Iruñeko eta Elizondoko zentroetako egonaldiak modu egokiagoan banatzea.
SAYOA EGOITZA PSIKOGERIATRIKOA	2 errekerimendu 1. Simulakroa 2. BAPen diziplinarteko izaera 2 ohartarazpen 1. Ikuskatzaileari emandako datuen egiazkotasuna 2. Detektatutako langile-gabeziarako kontratuak egitea
CAIDIS: INFANTA ELENA	Errekerimendu 1 1. BAParen gaia
ERRONKARI IBARRA	Errekerimendu 1 1. BAParen gaia
TRINITARIOAK ETXERIK GABEKO PERTSONENTZAKO HARRERA-ZENTROA	3 errekerimendu 1. BAPak profesionalak eduki behar dituzte 2. Parte-hatzerako Kontseilua 3. Kexen eta iradokizunen protokoloa egitea
VIDA NUEVA CIRIZA HARRERA-ZENTROA	2 errekerimendu 1. BAPak berrikusi direneko data 2. Simulakroa
ALAIZ EGOITZA	Ohartarazpen 1 1. Parte-hatzerako Kontseilua
BELZUNCE KOMUNITATEA	2 errekerimendu 1. Simulakroak 2. Parte-hatzerako Kontseilua

ERREKERIMENDUA-OHARTARAZPENAK, 2016an	
ZERBITZUA	ERREKERIMENDUA/OHARTARAZPENAK
ZOE ETXEA	3 errekerimendu <ol style="list-style-type: none"> 1. Parte-hatzerako Kontseilua. Bertaratuen izena 2. Harreraren, kexen eta iradokizunen protokoloak 3. Urteko simulakroa
TUTERAKO IRAGAITZAZKO BIDARIEN UDAL ATERPEA	Errekerimendu 1 <ol style="list-style-type: none"> 1. Aterpetxea beste higiezin egoki batera eramatea

Ikuskapen planean 2016ko Ikuskapen Planean egindako ohartarazpenak zuzendu izanari dagokionez, esan beharra dago kasu guztietan ikuskapen-bisitak egin zirela 2017an, haiek zuzenketak egin ote diren egiaztatzeko. Halakorik egin ez bada, zehapen-espedita irekitzea sustatu da.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko martxoaren 28an

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

Galdera, 2018ko Ikuskaritza Planean errenta bermatuko espeditaak Foruzaingoari soilik igortzea aurreikusteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maribel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2018ko Ikuskaritza Planean errenta bermatuko espeditaak Foruzaingoari soilik igortzea aurreikusteari buruzkoa. Galdera 2018ko martxoaren 9ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko apirilaren 4an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du (9-18/PES-00067) 2018ko Ikuskaritza Planean errenta bermatuko

espeditaak Foruzaingoari soilik igortzea aurreikusteari buruz. Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

2017an, Nafarroako polizia guztien lankidetzak eskatzeko aukera aztertu zen, errenta bermatua dela-eta egin beharreko ikuskatzeak arintzeko.

Esperientziak erakutsi digu Nafarroako Foruzaingoaz baliatzea errenta bermatuaren ikuskatze-prozedura oso eraginkor eta efizientea dela; Nafarroako beste polizia batzuekin lankidetzan jarduten du beti.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko martxoaren 28an.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: Miguel Laparra Navarro

Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko langile publikoen amatasun eta aitatasun baimenen urtez urteko bilakaerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mónica Doménech Linde andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Foru Komunitateko langile publikoen amatasun eta aitatasun baimenen urtez urteko bilakaerari buruzkoa. Galdera 2018ko martxoaren 9ko 30. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko martxoaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mónica

Doménech Linde andreak idatzizko galdera egin du (9-18/PES-00068). Hauxe da Lehendakari-tzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilariaren erantzuna:

Erantsita bidaltzen dizut Funtzio Publikoko Zuzendaritza Nagusiaren 2018ko martxoaren 28ko txostena, eskatzen den informazioa biltzen duena.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 14. artikulua betetz.

Iruñean, 2018ko martxoaren 28an

Lehendakaritzako, Funtzio Publikoko, Barneko eta Justiziako kontseilaria: M^a José Beaumont Aristu

Langile publikoen amatasun eta aitatasun baimenen kopurua, 2016tik hona, Nafarroako Foru Komunitatean

	2016	2017	2018 (otsailaren 28ra arte)	Guztira
Amatasuna	670	613	99	1.382
Aitatasuna	269	216	37	522
Guztira	939	829	136	1.904

Aipatutako urteetan hasiera duten baimenak (2018-02-28ra arte).

Eskatutako eta ukatutako baimenen inguruko datuari dagokionez, esan beharra dago informazio hori ez dagoela SAP RRHH sisteman, eta haiek emateko eskuduna den organo bakoitzak edukiko dituela, eta soilik beren kargura dituzten langileei dagokienez.

Bestetik, aipatu beharra dago SAP RRHH sisteman soilik jasota dagoela Administrazio honetan dauden baimen-mota desberdinak eta, horrenbestez, amatasun-lizentzia eta aitatasun-baimena bereizita ageri direla. Hala eta guztiz ere, emandako baimen edo lizentzia bakoitzari buruzko datu gehiagorik ez dago; horrenbestez, ez dago jasota

amatasun-lizentziak erditzeari, harrerari ala subrogazioari dagozkien. Halaber, informazio hori Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan egotekotan, interesdunek aurkeztutako eskabideetako bakoitzean egonen dira, edo organo eskudun bakoitzak haiek emateko emandako baimen-ebazpenetan, zeinak organo horien artxiboetan bai baitaude.

2018(e)ko martxo 28, asteazkena

Funtzio Publikoaren zuzendari nagusia: Amaia Goñi Lacabe

Galdera, Abiadura Handiko Trenaren proiektuko 4. eta 5. azpizatiaren oinarritzko proiektuari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Abiadura Handiko Trenaren proiektuko 4. eta 5. azpizatiaren oinarritzko proiektuari buruzkoa. Galdera 2018ko martxoaren 16ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko apirilaren 27an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari eta eledun Adolfo Araiz Flamarique jaunak galdera egin du (PES 69/2018) Tafalla-Arrizabalaga eta Arrizabalaga-Ezkirotz tartetako oinarritzko proiektuari buruz. Hona Garapen Ekonomikorako kontseilariaren erantzuna:

1. Nondik heldu da Nafarroako Gobernuak aipatutako zati horien oinarritzko proiektua egiteko konpromisoa edo obligazioa? 2010ean sinatutako lehengo hitzarmenetik? Hala baldin bada, hitzarmen hori indarrean ez baldin badago eta bi aldeek salatu baldin badute, zer dela-eta jarraitzen du Nafarroako Gobernuari obligazioak sortzen?

Konpromiso hori Estatuko Administrazio Orokorren eta Nafarroako Foru Komunitatearen artean abiadura handiko trenaren Zaragoza-Iruña tarteko Nafarroako zatia eraikitzeke 2009ko maiatzaren 16an egindako lankidetzako protokolo orokorretik heldu da.

Bigarren klausulako 2. apartatutak honako hau dio: “Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa arduratuko da Zaragoza-Iruña Abiadura Handiko Linearen plataforma-eraikuntzarako proiektuak idazteaz, Castejonetik Iruñerrira bitarteko tartean eta abiadura handiko geltoki berrira bitartean”.

Hirugarren klausulako 5. apartatuak, berriz, honako hau dio: “Protokolo hau garatzeko hitzarmenak sinatzen direnetik aitzina, Nafarroako Gobernuak arduratuko da eraikuntza-proiektuak idazteko eta obra zuzentzeko beharrezkoak diren zerbitzu-kontratuek, Protokolo honen arabera berari baitagozkio. Halere, Nafarroako Gober-

nuak, egoki iritzi gero eta Sustapen Ministerioak aurretiaz baimena emanez gero, klausula honen saigarren apartatuan ezarritakoa bete eta gero, aurretiaz kontratatu ahal izanen ditu Nafarroako Gobernuaren ardurapekoak diren jarduketegi dagozkien oinarritzko proiektuak eta eraikuntza-proiektuak, klausula honen bigarren apartatuan ezarritakoaren arabera. Eraikuntza-proiektu horien birtualtasuna eta kontratazioaren ondorioak Estatuko Administrazioaren aitzinean helduko dira Protokolo hau garatzen duten hitzarmenak sinatzen direnean”.

2010eko apirilaren 9an Protokolo hau garatzen duten bi hitzarmen sinatu ziren:

“Estatuko Administrazio Orokorren, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta ADIF-Trenbide-azpiegiturak Administrazio Ente Publikoaren arteko lankidetzako hitzarmena, Zaragoza-Iruña abiadura handiko linea Nafarroan eraikitzeke”, zeinak helburu baitu Estatuko Administrazio Orokorren, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta ADIFen arteko lankidetzaren nondik norakoak eta baldintzak ezartzea Nafarroako lurraldean Zaragoza-Iruña abiadura handiko linea eraikitzeke –Castejón-Iruñerria tartea–, abiadura handiko Kantauri-Mediterraneo korridorearen erkidego honetako lehengo fase gisa.

Eta “Estatuko Administrazio Orokorren, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta ADIF-Trenbide-azpiegiturak Administrazio Ente Publikoaren arteko lankidetzako hitzarmena, Zaragoza-Iruña abiadura handiko lineako zenbait jarduketa agintzeko”, zeinak helburu baitu ezartzea Ministerioak eta ADIFek Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari zer baldintzatan agintzen dioten idaztea eraikuntza-proiektuak, obra-zuzendaritza, obren kontratazioa eta exekuzioa eta desjabetzeetarako lankidetzak.

Hitzarmenak amaiarazita daude, baina ez likidatuta. Nafarroako Gobernuak ingeniaritzako enpresei esleitutako kontratu guztiak likidatu beharra dago lehenago.

2. Foru Gobernuak Sustapen Ministerioari izasko udazkenean igorritako hitzarmenaren zirriborroa ez baldin bazen gauzatzera iritsi (aldeek ez zuten sinatu), Nafarroako Gobernuak zergatik hartzen du bere gain 4. eta 5.

azpiztien oinarritzko proiektuak idazteko obligazioa –aurreikuspenen arabera, Nafarroako Gobernuak aurtengo ekainean eta urrian entregatu behar zizkion, hurrenez hurren, ADIFI–? Gobernuak eutsi egiten al dio hitzarmen sinatugabe –eta, hortaz, indarrean ez dagoen– bateko konpromiso bat betetzeko bere borondateari? Baiezkoan, zergatik?

3. Indarreko aurrekontuko zer aurrekontu-partidarekin finantzatu du Garapen Ekonomikorako Departamentuak oinarritzko proiektu horien kostua? Zergatik ez ditu Gobernu zentralak esleitzen eta finantzatzen?

4. tarteari dagokionez, Nafarroako Gobernuak 2018ko martxoaren 14an igorri zion ADIFI oinarritzko proiektua, zeina hitzarmenak amaiarazi baino lehenago idatzita baitzegoen. Kontratatuta daukan lanen enpresa adjudikazio-hartzailearekiko likidazioa egiteari ekinen zaio. Gero, ADIFek kontratatuko du kasuko eraikuntza-proiektuen idazketa.

5. tarteari dagokionez, Nafarroako Gobernuak enpresa adjudikazio-hartzailearekiko kontratua likidatzeari ekinen dio. Gero, ADIFek tarte horretarako egoki irizitako proiektuen idazketa kontratatuko du.

Nafarroako Gobernuaren 2018ko aurrekontuan “840001 84310 6091 453100 Abiadura handiko trenaren proiektua eta obren zuzendaritza” partida ageri da. Partia horren kargura ordainduko dira 4. eta 5. tarteetako proiektuen likidazio-lanak.

Gobernu zentralak bere aurrekontuen kargura idatziko ditu korridorea bukatzeko beharrezkoak direan proiektuak (oinarritzkoak edo eraikuntzakoak).

4. Indarreko aurrekontuko “840001 84310 6091 453100 Abiadura handiko trenaren proiektua eta obren zuzendaritza” partida –

1.000.000 eurokoa– ez al zen Tafalla-Arrizabalaga baino lehenagoko zatietako lanetan IDOM enpresari kontratatutako laguntza teknikoa dela-eta egiteke zeuden likidazioak egiteko?

Partida hori IDOMekiko proiektuak (3. tarte) nahiz 4. eta 5. tarteetakoak eta koordinazio-kontratua eta geologia- eta geoteknia-kanpaina likidatzeko da.

5. Zer prozedura baliatu da 4. eta 5. azpiztietan oinarritzko proiektu horietarako laguntza teknikoa kontratatzeko? Zer enpresak hartu dute parte prozedura horretan? Zein izan zen lizitazio-prezioa?

Herri Lanetako zuzendari nagusiaren urriaren 20ko 1234/2009 Ebazpenaren bidez Intecsa-Inarsa SA enpresari esleitu zitzaizkion “Nafarroa 2012 Plana. Lehentasunezko Jarduketa. Kantauri-Mediterraneo Abiadura Handiko Korridorea. Castejón-Iruñerria tarte. Tafalla-Iruñerria azpitarte. Plataforma” eraikuntza-proiektua idazteko lanak, 865.000,00 euroan. Lizitazioaren prezioa 1.000.000 eurokoa izan zen.

Herri Lanetako zuzendari nagusiaren urriaren 20ko 1233/2009 Ebazpenaren bidez Geocontrol SA/TRN Ingeniería eta Planificación de Infraestructuras SA enpresen aldi baterako enpresa-elkarteari esleitu zitzaizkion “Nafarroa 2012 Plana. Lehentasunezko Jarduketa. Kantauri-Mediterraneo Abiadura Handiko Korridorea. Castejón-Iruñerria tarte. Arrizabalaga-Ezkilotz azpitarte. Plataforma” eraikuntza-proiektua idazteko lanak, 684.000,00 euroan. Lizitazioaren prezioa 800.000 eurokoa izan zen.

Iruñean, 2018ko apirilaren 24an

Garapen Ekonomikorako kontseilaria: Manuel Ayerdi Olaizola

Galdera, Club Atlético Osasunak bere tributu-zorrak ordaintze aldera Ogasunari emandako ondasunak berrerosteko edo lehentasunez erosteko eskubideari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Club Atlético Osasunak bere tributu-zorrak ordaintze aldera Ogasunari emandako ondasunak berrerosteko edo lehentasunez erosteko eskubideari buruzkoa. Galdera 2018ko martxoaren 16ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko apirilaren 11n

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (9-18/PES-00070) Sadar futbol-zelaia berrerosteko C.A. Osasunak daukan egoera juridikoarekin lotutako zenbait alderdiri buruz. Galdera hori 2018ko martxoaren 6ko 1194 sarrera-zenbakiarekin erregistratu zen. Hona Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

¿Gobernuaren ustez, Club Atlético Osasunak Nafarroako Foru Komunitatearekin zuen zorraren berregituratzea onesten zuen abenduaren 2ko 26/2014 Foru Legeak klub horri inolako eskubiderik ematen al dio bere tributu-zorrak ordaintze aldera Ogasunari emandako ondasunak berrerosteko edo lehentasunez erosteko?

Erantzunak ezezkoa izan behar du ezinbestez, zeren eta 26/2014 Foru Legeak ez baitu ematen erosketa-eskubiderik edo lehentasunez eskuratzeko eskubiderik.

¿Gobernuaren ustez, Club Atlético Osasunari aplikatzekoa al da Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legean ezarritako eta hiru salbuespenetakoren bat, baldin eta klub horrek Sadar futbol-zelaia edo Taxoareko instalazioak berrerosi nahi baditu?

– b) letran, eskuratzaila irabazi asmorik gabeko entitate bat denean eta ondasuna interes orokorreko helburuetarako erabili behar bada.

– i) letran, lege xedapenez aitorturiko lehentasunez eskuratzeko eskubide bat duen bati egiten zaionean salmenta.

– j) letran, salbuespeneko arrazoiengatik komenigarritzat jotzen denean higiezinaren okupatzaileari egitea salmenta.

Gai horri buruz, aipatu beharra dago azter litekeela Nafarroako Ondareari buruzko apirilaren 4ko 14/2007 Foru Legearen 37.3 artikulua eta b) letren aplikazioa, klubari buruzko bi foru legeetako zioen azalpenen edukiari erreparatuta: Club Atlético Osasunak Nafarroako Foru Komunitatearekin duen zorraren berregituratzea onesten duen abenduaren 2ko 26/2014 Foru Legea eta Nafarroako Foru Komunitateak Club Atlético Osasunari abal bat emateko otsailaren 14ko 1/2003 Foru Legea; bereziki, bietatik lehenaren 2.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Hala eta guztiz ere, inguruabar horiek aztertu eta baloratuko dira Osasunak erosketa-eskaintza formal bat egiten duenean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko apirilaren 11n

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria: Mikel Aranburu Urtasun

Galdera, 2018ko martxoaren 8ko grebak Hezkuntza Departamentuaren menpeko ikastetxeetan izandako eraginari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, 2018ko martxoaren 8ko grebak Hezkuntza Departamentuaren menpeko ikastetxeetan izandako eraginari buruzkoa. Galdera 2018ko martxoaren 16ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko apirilaren 5ean

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak 9-18/PES/00071 idatzizko galdera egin du. Hona Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Grebak ikastetxeetan izan duen eraginari buruz eskatu diren datuak erantsitako dokumentuan eman ditugu. Dokumentu hori lortu da ikastetxeetako zuzendaritzek EDUCA plataforman

2018ko martxoaren 22ko 13:00ak arte sartu dituzten datuekin:

Eskualdeko garraioko eta jantokiko zerbitzu gehigarriari dagokienez, horiek Nafarroako Gobernuaren erantzukizuna baitira, honako hauek dira jasotako datuak:

Eskola garraioa:

Eskola garraioko zerbitzu oro gutxieneko zerbitzuetan dago; hori dela eta, inolako eraginik ez zen izan horretan.

Eskualdeko jantokiak:

Garraiatutako ikasleak: Garraiatutako ikasle guztiek jantoki-zerbitzua (elikadura eta zaintzaileak) eduki zuten; hori dela eta, grebak ez zuen eraginik izan ikasle horiengan.

Iruñean, 2018ko apirilaren 5ean.

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuko ele-duna: María Solana Arana

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Parlamentuaren kudeaketarako Ágora sisteman.)

Galdera, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Plaza de la Cruz BHIko Batxilergoko bigarren mailako ikasleekin eginen duen saioari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Plaza de la Cruz BHIko Batxilergoko bigarren mailako ikasleekin eginen duen saioari buruzkoa. Galdera 2018ko martxoaren 16ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko apirilaren 6an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du informazioa nahi baitu "Nafarroako Gobernuko lehendakariaren eta batxilergoko bigarren mailako ikasleen arteko topaketari buruz". Hauxe da Nafarroako Gobernuko lehendakariaren informazioa:

Zure ustez, egokia al da kargu publiko batek topaketa bat egitea ikastetxe publiko

batean bertako ikasleekin, bere bizitza profesionalaz eta pertsonalaz hitz egiteko?

Nafarroako Gobernuaren lehendakari gisa, uste dut egokia ez ezik oinarritzat eta funtsezko ere badela ikastetxeetatik datozen eskakizunei erantzutea, haien xedea denean Nafarroako hiru foru erakundeetako bat ezagutzea. Nafarroako Foru Erauzte Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 10. artikulua arabera, honako hauek dira Nafarroako foru erakundeak:

- a) Nafarroako Parlamentua edo Gorteak.
- b) Nafarroako Gobernu edo Foru Diputazioa.
- c) Nafarroako Foru Komunitateko lehendakaria.

Ordezkaritza publiko bezala, foru erakundeak oro har gizartera hurbildu behar ditugu; bereziki, gazteenengana. Premisa hori oso presente dago Nafarroako Gobernuaren lehendakariaren kabinetean, herritarrengandik jasotzen dituen eskakizun eta eskariei erantzuterakoan. Horri dagokionez, nire bokazioa eta, horrenbestez, nire Kabinetearen bokazioa da ahal den modurik onenean erantzutea herritarrek helarazten dizkiguten eskari, eskakizun edo eskaerei.

Kasu honetan, Lehendakariaren Kabinetek ikastetxe batetik etorritako eskari bati erantzun zion: ikasleekin topaketa bat izatean zetzan. Hartara, martxoaren 9an, ostiralez, ikastetxean bisita labur bat egin ondoren, ikasleek egin nahi izan zizkizaten galderei erantzun nien. Ikastetxeko Batxilergoko 2. mailako ikasleek parte hartu zuten: 160 ikasle inguru ziren. 12 ikasleren ordezkaritza batek egin zizkidan galderak, aurrez prestatuta zeuzkatenak; azkenean, ordea, ikasleen interesa ikusita, galderak egiteko txanda bat ireki zen ikasle guztientzat, eta hartan ikasle askok hartu zuten parte.

Gisa horretako beste ekitaldirik egin al da lehenago ikastetxe horretan?

Ez, ez lehendakari honek, ez eta gaurko Nafarroako Gobernuaren beste inongo kidek ez dute aurrez gisa horretako ekimen batean parte hartu ikastetxe berean.

Hala eta guztiz ere, lehendakari honek erantzun izan die, bai, beste ikastetxe batzuetatik etorri diren antzeko eskariei.

Esate baterako, 2016ko apirilaren 8an Tuterako Valle del Ebro BHIra joan nintzen, El valle de las Palabras lantaldearen eskari bati erantzuteko (instititutuko egunkari digital bat da, zeinarekin ikasleek “El País de los Estudiantes” lehiaketan parte

hartu baitzuten). Elkarrizketa ikasle-talde batek egin zidan, eta ikastetxeko irriatiak emititu zuten.

2016ko apirilaren 8an, Basoko BHIko DBHko 4. mailako ikasleen talde batek topaketa bat eskatu zuen, halaber, “El País de los Estudiantes” lehiaketan izena emanda zegoen eskolako egunkariaren elkarrizketa bat egiteko. Lehiaketa berekarik eskari bati jada erantzuna emanda nengoenez, eskaera hori Erakundeekiko eta Herritarrekiko Harremanetarako kontseilariari, Ana Ollori, helarazi zitzaion, zeina orduan Nafarroako Gobernuaren eleduna baitzen. Azkenean, erantzun egin zion eskariari. Argitalpen digital hori, zeinak bere edukietan kontseilariari egindako elkarrizketa baitzuen, “El País de los Estudiantes” lehiaketaren XV. edizioko sarietarako finalista izan zen.

2016ko abenduaren 12an, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuko San Francisco Javier Zentroa bisitatu nuen, astekari bat eta blog digital bat egiten dituzten gaixoek eskatuta, haiekin topaketa bat izateko. San Francisco Javier Zentroko egoitza-unitateetako gaixoek beraiek, zentroko terapeuta okupazionalen laguntzarekin, galderak egin ahal zizkizaten, elkarrizketa moduan, eta gero argitara eman zituzten.

2017ko otsailaren 24an, Tafallako Marqués de la Real Defensa ikastetxe publikoko eskariari erantzun nion. Tafallan inauteri garaian izan zuten suturen dramatizazioa ikusteko gonbita zen, “Zain dezagun ingurumena” proiektuaren barruan. Proiektu horri Hezkuntza Berrikuntzaren Lehen sari nazionala eman zioten, GSDInnovako epaimahaiaren aho bateko erabakiaz.

2017ko apirilaren 11n, Martzillako San Bartolomé ikastetxe publikora joan nintzen, ikastetxeko maisu-maistrek eskatuta, haur hezkuntzako 6. mailako ikasleen “Podcasting en la escuela” berrikuntza-proiektuan parte hartzerako. 14 ikasleren talde baten galderei erantzun nien. Gero, topaketaren eta elkarrizketaren bideoa ikastetxearen webgunean jarri ziren.

Topaketa hauek guztiak balio izan dute, halaber, ikastetxetara bisitak egiteko, haien egoera bertatik bertara ezagutzeko eta zuzendaritza-taldeekin iritzi-truke batzuk izateko. Topaketa hauek guztiak modu oso positiboan baloratu izan ditugu bai lehendakari honek berak, bai parte hartu duten ikastetxeek ere.

Ikasleek nahitaez joan behar al dute topaketara?

Lehendakariaren Kabinetek ez daki hori, zeren eta ikastetxeak berak antolatutako jarduerak baitira.

Aurreikusita al dago beste kargu publiko batzuek gisa bereko topaketak egitea beren bizitza profesionalaz eta pertsonalaz hitz egiteko?

Momentuz ez dugu gisako topaketarik aurreikusi, baina bai Nafarroako Gobernu kide guztiek, bai Nafarroako Gobernu lehendakariak jarraituko dugu ahal dugun modurik onenean erantzuten hezkuntza-erkidegotik edo, oro har,

gizartetik datorkigun edozein ekimeni, helburua bada erakunde hau eta haren goi-ordezkariek hobeki ezagutzea.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduan ezarritakoa betetzeko.

Iruñean, 2018ko apirilaren 6an

Nafarroako Gobernu lehendakaria

Galdera, Camilo José Cela Unibertsitateko Hezkuntza Politiken Katedraren lanean PISA txostena dela-eta Nafarroari buruz ageri diren datuei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Camilo José Cela Unibertsitateko Hezkuntza Politiken Katedraren lanean PISA txostena dela-eta Nafarroari buruz ageri diren datuei buruzkoa. Galdera 2018ko martxoaren 16ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-18/PES-00073 galdera aurkeztu du. Hauxe da Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna:

Lehenengo bi galderen erantzuna:

Hezkuntza Departamentuak Nafarroako 2015eko PISA probei buruz egiten duen balorazioa Ebaluazio eta Kalitate Atalaren honako esteka honetan eskura daiteke:

<https://www.educacion.navarra.es/web/dpto/evaluacion-y-calidad/evaluacion/evaluaciones-internacionales/pisa>

Hirugarren galderaren erantzuna:

Departamentuak efizientzia eta ekitate handiagoak lortzeko ezarritako neurriak Nafarroako Aniztasunerako Arretaren Plan Estrategikoan jasotakoak dira; haien artean, honako hauek aipatu behar ditugu:

– Eskolatzeko eredu eta jarraibide ekitatiboak ezartzea, ikasleak onartzerakoan oreka handiagoa lortze aldera.

– Lehentasunezko esku-hartzerako ikastetxe bat ezartzea, kalitatezko hezkuntza proiektuak bultzatzeko.

– Eskualdeetako eskolatzeko-batzordeak biziberritzea.

– Aniztasunaren arretarako baliabideak optimizatzea.

– Ikastetxeetan autoebaluazioko prozesuak sustatzea, hobekuntza-proposamenak sortzeko.

– Esperientzia-trukerako eskualdeko sareak ezartzea.

– Hezkuntza inklusiboaren erronkei erantzuteko eta ikasle guztien eskola-arrakasta lortzeko aldaketa metodologikoak ezartzea.

– Berriazko profil profesionalak berrikusi eta definitzea.

– Osasun Departamentuak, Gizarte Zerbitzuek eta Adingabearen Arretak eta Hezkuntza Departamentuak osatutako lan-sare bat ezartzea.

– NHBBZ gidatzen duen araudia gaurkotzea, hura hezkuntza-erkidegoaren beharrezanean egokitzeko.

Neurri horiek garatzen dituzten jarduketak zehatzak Nafarroako Aniztasunerako Arretaren Plan Estrategiko osoan zehar deskribatuta daude.

Iruñean, 2018ko apirilaren 13an.

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuko ele-duna: María Solana Arana

Galdera, Hondarribiko udalekuetako familiabakarreko etxebizitzari 1995etik eman zaion erabilerari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hondarribiko udalekuetako familiabakarreko etxebizitzari 1995etik eman zaion erabilerari buruzkoa. Galdera 2018ko martxoaren 16ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera bat aurkeztu du (9-18/PES00074) –2018ko martxoaren 8ko 1238. erregistroko zenbakia du– Hondarribiko udalekuetako familiabakarreko etxebizitzari 1995etik eman zaion erabilerari buruz. Honen bidez, Patronatuko buru Javier Miranda Errok, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak eskatuta, igorritako informazioa helarazten dizu Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak:

2018ko apirilaren 6an eta 11n, Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusitik heldutako bi informazio-errekerimendu jaso dira, bera baita Nafarroako Kutxa Banku Fundazioaren gaineko babesletza-eginkizunak betetzen dituen.

Bi dokumentuetan berariaz aipatzen da, gaikuntza-arau gisa, Fundazioaren Estatutuen 52.2 artikulua, zeinak aurreikusten baitu Babesletzak Fundazioari bere babesletza-eginkizuna betetzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio guztia eskatu ahalko diola.

Arau hori dela eta, bi informazio-errekerimenduei erantzun behar diegu; izan ere, horien bitartez eskatzen da Babesletzari igortzeko errekerimendu horiekin bat Nafarroako Gobernuari zuzendutako hiru galdera parlamentarioetan eskatutako informazioa.

(PES 74 galderari dagokion informazioa baizik ez dugu kopiatu)

9-18/PES-00074 galdera (lehenengo errekerimendua), Hondarribiko udalekuetan kokatutako etxei buruzkoa:

Lehena. Zer erabilera eman zaio higiezin horri 1995etik gaur arte?

Babesletzari 2018ko otsailaren 12an emanda-ko erantzunean informatu zen bezala, higiezin hori eraiki zenetik 1990eko hamarkadaren amaierara arte etxebizitza hori udalekuetako atezainaren eta haren familiaren bizitokia izan zen. Fundazioak gaur egun dauzkan artxiboei eta informazioari jarraituz, higiezin hori azken urteetan soilik erabili da udalekuetako arduradunak egun jakin batzuetan lo egoteko, instalazioetan jarduera dagoen aldietan; ezin da zehaztasunez informatu higiezinak bestelako erabilerarik ba ote duen.

2015ean zehar, Fundazioak bere plantillako langileei aukera ematen die etxebizitza horretara familiekin batera joateko, astebeteko edo bi aste-ko aldietan, ekainetik hasi eta irailera bitartean. Langileek Fundazioari aurrez ezarritako prezio bat ordaintzen diote hautatutako egonaldi motaren arabera.

Jarduera hori barne-prozedura batean erregulatuta dago, eta horrek bermatzen du Fundazioko langile guztiek aukera-berdintasuna izatea etxebizitza hori erabili ahal izateko.

Bigarrena. Nafarroako Kutxako zer organok izan du une bakoitzean higiezin horretan erabakiak hartzeko ardura? Zehaztu organo horretako kideak.

Nafarroako Aurrezki Kutxa eta Bahitura Etxea fundazio berezi bilakatu zenetik, 2013an, higiezin horren erabilerari buruzko erabakiak, azken batez, Nafarroako Kutxa Banku Fundazioaren Patronatuak hartzen ditu.

Ez dakigu historikoki zein organo izan diren higiezin horri buruzko erabakiak hartzeko erantzuleak, eta kontsultatutako artxiboetan ez dugu ikusi horri buruzko inongo erabakirik, dokumentu bidezko justifikazioa duenik.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko apirilaren 12an

Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilaria: Mikel Aranburu Urtasun

Galdera, Hondarribiko udalekuetako ipar hegalean 2009an egindako erreformari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderen erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hondarribiko udalekuetako ipar hegalean 2009an egindako erreformari buruzkoa. Galdera 2018ko martxoaren 16ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko apirilaren 13an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera bat aurkeztu du (9-18/PES00075) –2018ko martxoaren 8ko 1238. erregistroko zenbakia du– Hondarribiko udalekuetako ipar hegalean 2009an egindako erreformari buruz. Honen bidez, Patronatuko buru Javier Miranda Errok, Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuak eskatuta, igorritako informazioa helarazten dizu Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak:

2018ko apirilaren 6an eta 11n, Nafarroako Gobernuko Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusitik heldutako bi informazio-errekerimendu jaso dira, bera baita Nafarroako Kutxa Banku Fundazioaren gaineko babesletza-eginkizunak betetzen dituen.

Bi dokumentuetan berariaz aipatzen da, gaikuntza-arau gisa, Fundazioaren Estatutuen 52.2 artikulua, zeinak aurreikusten baitu Babesletzak Fundazioari bere babesletza-eginkizuna betetzeko beharrezkotzat jotzen duen informazio guztia eskatu ahalko diola.

Arau hori dela eta, bi informazio-errekerimenduei erantzun behar diegu; izan ere, horien bitartez eskatzen da Babesletzari igortzeko errekerimendu horiekin bat Nafarroako Gobernuari zuzendutako hiru galdera parlamentarioetan eskatutako informazioa.

(PES 75 galderari dagokion informazioa baizik ez dugu kopiatu)

9-18/PES-00075 galdera (lehenengo errekerimendua), Hondarribiko udalekuetako ipar hegalean 2009an egindako erreformari buruzkoa:

Lehena: Erreforma hori justifikatzen duen dokumentazioa.

Honekin batera, I. eranskin moduan, gaur egun Fundazioaren artxiboetan erreformari buruz dagoen informazioa bidaltzen dizut.

Bigarrena: Erreforma egiteko agindua eman zen unean espazio horretarako aurreikusitako erabilera.

Fundazioan dauden artxiboak eta Nafarroako Aurrezki Kutxa eta Bahitura Etxearen Administrazio Kontseiluaren (CAN) eta Nafarroako Aurrezki Kutxa eta Bahitura Etxearen Obra Sozialaren Fundazioaren Patronatuaren (FOSCAN) 2008ko, 2009ko eta 2010eko aktak kontsultatuta, ez dakigu zein erabilera aurreikusi ziren espazio horretarako, erreforma egitea agindu zen unean.

Babesletzari 2018ko otsailaren 6an emandako erantzunean informatu genuen bezala, Fundazioan ez dago jasota erreforma horren ondotik espazio horri inongo erabilerarik eman izana, 2016ra arte. Data horretatik aurrera, eremu hori noizean behin prestatu izan da udalekuetan egiten diren jarduketara batzuetarako espazio osagarri gisa.

Hirugarrena: Erabaki hori zer organok hartu zuen eta organo hori nork osatzen duen.

Fundazioan dauden artxiboak eta CANen Administrazio Kontseiluaren FOSCANen Patronatuaren 2008ko, 2009ko eta 2010eko aktak kontsultatuta, ezin da zehaztasunez baieztatu zein organok erabaki zuen erreforma hori egitea.

Laugarrena: Erreforma horren hasierako aurrekontua.

Fundazioan dauden artxiboak eta CANen Administrazio Kontseiluaren FOSCANen Patronatuaren 2008ko, 2009ko eta 2010eko aktak kontsultatuta, ez dugu inongo akordio, txosten edo dokumenturik aurkitu zehaztasunez informatzeko erreforma horretarako aurreikusitako hasierako aurrekontuari buruz.

Bosgarrena: Erreforma horretan guztira egindako gastua.

Fundazioaren artxiboetan dagoen kontabilitate-informazioari jarraituz, 2009an Hondarribiko

udalekuetan egindako erreformaren guztizko gutua 764.087,63 eurokoa izan zen.

Seigarrena: Erreforma horri buruzko fakturak igortzea.

Honekin batera, I. eranskinean ere jasota ageri diren fakturak gehitu ditugu, CANi egindakoak, Udalekuetan 2009an zehar egindako erreformaren ordainketari dagozkionak

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2018ko apirilaren 12an

Ogasuneko eta Finantza Politikako Ogasuneko eta Finantza Politikako kontseilariak modu digitalean sinatua.

Mikel Aranburu Urtasun

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Parlamentuaren kudeaketarako Ágora sisteman.)

Galdera, asteko erlijio-irakastorduen kopurua murrizteari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, asteko erlijio-irakastorduen kopurua murrizteari buruzkoa. Galdera 2018ko martxoaren 23ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko apirilaren 20an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto Catalán Higuera jaunak 9-18/PES-00076 idatzizko galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Hezkuntza Departamentua ordutegien antolamendu berri bat aztertzen ari da Lehen Hezkuntzarako eta Bigarren Hezkuntzarako.

Iruñean, 2018ko apirilaren 20an.

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuko ele-duna: María Solana Arana

Galdera, Hezkuntza Ministerioaren eta British-aren arteko hitzarmenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Alberto Catalán Higuera jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Hezkuntza Ministerioaren eta British-aren arteko hitzarmenari buruzkoa. Galdera 2018ko martxoaren 23ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2018ko apirilaren 12an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Alberto

Catalán Higuera jaunak 9-18/PES-00077 idatzizko galdera aurkeztu du. Hauxe da Nafarroako Hezkuntzako kontseilariaren informazioa:

Ez da Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren eskumena informatzea erakunde horretatik kanpokoak diren kudeaketei buruz; kasu honetan, hirugarrenen arteko hitzarmen bati buruz. Horrenbestez, premiatzen zaitugu hitzarmen horretan ukitutako eragileei informazioa eskatzera.

Iruñean, 2018ko apirilaren 12an.

Hezkuntzako kontseilaria eta Gobernuko ele-duna: María Solana Arana

